

Lan-esplotazioa

FRANCISCO JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle doktorea, Deustuko Unibertsitatea eta AVD/ZEA Zuzendaritzaren kidea

1. LAN-ESPLOTAZIOARI BURUZKO ZERTZELADA BATZUK

1. Gaur egun, lan-esplotazioaren kontzeptua hedatuta dago gizartean. Hala ere, ez dago berau definitzen duen araurik, ez nazioarte-mailan, ezta Espainiako estatuan ere. Hain zuzen, definiziorik eza hori da arazorik garrantzitsuen eta abiapuntua, giza eskubideak nabarmen urratzen dituen fenomeno horren aurka borrokatzeko. Bada, borroka horrek oinarritu izan behar du lan-esplotazioa prebenitzea, esplotazio hori gauzatzen duten subjektuak pertsegitzea eta esplotazioa jasaten duten biktimak babestea.

Esangura horretan, Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak orain-tsu ezetsi berri du Sozialisten parlamentu-taldeak proposatutako lege besteko proposamena, lan-esplotazioaren aurkako plana praktikan jartzeari buruzkoa¹. Aitzitik, proposamen hori irakurrita ez da ondorioztatzen zer ulertu behar den lan-esplotazioaz. Soil-soilik plan hori sustatzeko xedea aipatu da: «lanaldiaren inguruko gehiegikeriak borrokatzea, eta eragingarritasunez nahiz egiatan indartzea lan-denboraren arauak betetzearen inguruan gauzatu beharreko zaintza». Eta, ondore horietarako, planak aintzat hartu beharko lituzkeen ardatz batzuk zehaztu dira².

¹ Ikusi Diputatuen Kongresuko Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala. X. Legealdia, D atala: Orokorra, 2014ko abenduaren 26koa, 584. zk., 7. or.

² Ikusi Diputatuen Kongresuko Gorte Nagusietako Aldizkari Ofiziala. X. Legealdia, D atala: Orokorra, 2014ko azaroaren 28koa, 568. zk., 18-19. orr.

2. Autore batzuek ulertu dute XXI. mendeko lan-esplotazioak bat egiten duela lan duinik ezarekin, hau da, lan prekarioarekin³. Horrenbestez, joera horren arabera, lan-esplotazioak hurrengo egoerak bilduko lituzke bere baitara: lan-ezgonkortasuna, araututako lan- eta gizarte-eskubiderik eza, eta lan-baldintza prekarioak⁴.
3. Lan duinaz hitz egitean nahitaez hartu behar da kontuan LANERen Zuzendari Nagusiak, «Lan Duina» izenburuarekin, aurkeztutako Oroitidazkia, Lanaren Nazioarteko Konferentziaren 87. bileran, 1999ko ekainean, Ginebran⁵. Oroitidazki horren arabera, liberalizazio ekonomikoaren politikak estatuaren, lan-munduaren eta enpresaburuen arteko harremanak hankaz gora jarri eta gero, «gaur egun, LANERen xede nagusia aukerak sutatzea da, gizon eta emakumeek lan duin eta ekoizgarria izan dezaten, berdintasun, zuzentasun, segurtasun eta giza duintasuneko baldintzetan». Beraz, lan duinaz ulertu behar dena zehaztean, nahitaez errespetatu behar dira gutxieneko baldintza horiek.

Baldintza horiek abiapuntu, lan duina dute jomuga LANERen lau xede estrategikoeak, hots, laneko oinarritzko eskubideak sustatzeak, enpleguak, gizarte-babesak eta gizarte-solasak. Azken buruan, lau xede horiek zehazten dute zein modutan susta dezakeen LANEK lan duina.

Edonola ere, beren-beregi aitortu da gizarte bakoitzak bere ideia propioa duela lan duinari buruz. Modu horretara, behin gutxieneko baldintza horiek errespetatuta, lan duina estatu bakoitzaren inguru-

³ Ildo horretatik doa HUESCA GONZÁLEZ, A. "La explotación laboral. Un acercamiento a la situación en España", in VIDAL FERNÁNDEZ, F. (Zuz.), *La exclusión social y el Estado de Bienestar en España*, Barcelona: Icaria Editorial, 2006, 347. or.

⁴ Esangura horretan, HUESCA GONZÁLEZ, A. *op. cit.* 347-348. orr.

⁵ Lan duinaren kontzeptua LANEK erakundetu zuen, bidezko globalizazioa lor dadin justizia sozialaren inguruan emandako Adierazpenean, Lanaren Nazioarteko Konferentziak onetsitakoan, 2008ko ekainaren 10ean, Ginebran, bere 97. bileran (ikusi Hitzaurrea).

barren arabera definitu behar da; are gehiago, sarritan, gizarte bakoitzaren gaitasunek eta garapen-mailak baldintzatzen dute hori⁶.

Gainera, ideia hori indartu du bidezko globalizazioa lor dadin justizia sozialaren inguruan LANEk 2008an emandako Adierazpenak.

Bada, I. atalean, «norainokoa eta printzipioak» izenburupean, xedatu du LANEren lau xede estrategikoak gauzatzeko modua estatu kide bakoitzak zehaztu beharreko kontua dela, nazioarte-mailan bere gain hartu dituen betebeharrekin eta laneko oinarritzko printzipio eta eskubideekin bat etorriz, besteak beste, hurrengoak aintzat hartuz:

- (a) Estatu bakoitzaren baldintza eta inguruabarrak, bai eta enpresaburuak eta langileak ordezkatzan dituzten erakundeek adierazitako beharrian eta lehentasunak ere.
- (b) LANEren estatu kideen arteko interdependentzia, elkartasuna eta lankidetzak. Halakoak inoiz baino beharrezkoagoak dira, globalizatutako ekonomiaren testuinguruan.
- (c) Lanaren nazioarteko arauen printzipioak eta xedapenak.

Hain zuzen ere, ezin ahantz daiteke LANEk 1998an emandako Adierazpena, laneko oinarritzko printzipio eta eskubideei buruzkoa, abiapuntu dela nazioarteko komunitate osoarentzat. Hain justu ere, Adierazpen horrek unibertsal gisa hartu dituelako elkartzeko askatasunerako eta sindikatu-askatasunerako eskubideak; negoziazio kolektiborako eskubidea benetan aitortzea, derrigorreko edo nahitaezko lan-mota guztiak ezabatzea; haurren lana benetan abolitzea; eta enpleguan eta okupazioan bereizkeria ezabatzea. Are gehiago, LANEren hurrengo hitzarmenak laneko «oinarritzko arau» gisa kalifikatu dira, «gutxieneko arau» diren heinean banakako nahiz izaera kolektiboko lan-baldintzak garatu eta hobetzeko,

⁶ Horren inguruan ikusi GHAI, D. “Trabajo decente. Concepto e indicadores”, in *Revista Internacional del Trabajo*, 62. liburukia, 2. zk., 2003, 125-126. orr.

gizakien laneko eskubideak bermatzeko helburuarekin, kasuan kasuko estatuak duen garapen-maila gorabehera:

- (a) Sindikatu-askatasunari eta sindikatuko kide egiteko eskubidea babesteari buruzko Hitzarmena, 1948 (87. zk.).
 - (b) Sindikatuko kide egiteko eta negoziazio kolektiboko eskubidearen printzipioak aplikatzeari buruzko Hitzarmena, 1949 (87. zk.).
 - (c) Derrigorreko edo nahitaezko lanari buruzko Hitzarmena, 1930 (29. zk.).
 - (d) Derrigorreko lana abolitzeari buruzko Hitzarmena, 1957 (105. zk.).
 - (e) Enpleguan onartzeko gutxieneko adinari buruzko Hitzarmena, 1973 (138. zk.).
 - (f) Haurren lan-modurik makurrenak debekatzeari eta halakoak berehala ezabatzeko ekintzari buruzko Hitzarmena, 1999 (182. zk.).
 - (g) Balio bereko lanarengatik, gizonen eskulana eta emakumeen eskulana berdin ordaintzeari buruzko Hitzarmena, 1951 (100. zk.).
 - (h) Enplegu- eta okupazio-arloko bereizkeriari buruzko Hitzarmena, 1958 (111. zk.).
4. Nolanahi ere, kalterik egin gabe lan duinik ezaren eta lan-esplotazioaren arteko loturari, segurtasun juridikoa dela eta, gehiago zehaztu behar da lan-esplotazioaren edukia. Bestela esanda, lan duina, azaldutakoaren ildotik, printzipio inspiratzaile edo artezkaria baino ez da, lan-esplotazioaz ulertu behar dena zehazteko orduan, gehienbat, horretarako, nazioarteko arautegia hartu behar delako kontuan.

2. LAN-ESPLOTAZIOAREN EDUKIA ZEHAZTEKO GIDA-LE- RROAK ESPAINIAN

5. Espainian, jurisprudentziaren haritik, antzeman daitezke lan-esplotazioaren edukia zehazte aldera lagungarri izan daitezkeen gida-lerro batzuk. Hurrean ere, jurisprudentziaren arabera, lan-esplotazioaren kontzeptua ez dator bat kriminalizatzearekin edo zigortzearekin lan-baldintzen inguruko arau-hauste guztiak, ezpada soil-soilik gizartearentzat onartezinak diren zenbait jokabide, hots, «gizakiak gizakia esplotatzea» eragiten duten delituak. Egin-eginean ere, halako delituek iruzurrezko jokabideak dituzte oinarri, gehienetan, inposaketa, derrigortze, azpijoko edo prozedura maltzurrekin batera doazenak, helburu izanik langileak nahitaez jasan behar izatea bere eskubideen aurkako egoerak⁷. Halaber, adierazi izan da jokabide horiek direla «esplotazio-delitua» eragiten dutenak, hau da, zehatz-mehatz «langilearen giza eta gizarte duintasunaren aurka» doazenak⁸ edo, orokorrean, «giza duintasunaren» aurka⁹.

Azken buruan, saihestu nahi da «gizakien lana merkatu-gai gisa hartzea, inoren esfortzua kontratatzean edo esfortzu horrekin merkataritzako jarduerak gauzatzean, giza duintasunaren oinarritzko printzipioak errespetatu gabe, eta lan-harremanak babestu eta arautzen dituzten xedapenen aurka abusuz jardunez»¹⁰. Era berean, ildo horretatik doa, egoera irregularrean dauden langile atzerritarren esparru zehatzagoan bada ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko ekainaren 18ko 2009/52/EE Zuzentaraua, hirugarren herrialdeetako nazionaleri, halakoak egoera irregularrean dau-

⁷ 1975eko ekainaren 13ko AGE (1975\2867 JB), 4. Kontuan Hartzekoa; 1980ko otsailaren 2ko AGE (1980\429 JB), 1. Kontuan Hartzekoa.

⁸ 1976ko apirilaren 13ko AGE (1976\1624 JB), 4. Kontuan Hartzekoa; 1985eko martxoaren 14ko AGE (1985\1647 JB), 3. Kontuan Hartzekoa.

⁹ 2004ko azaroaren 22ko AGE (2004\8019 JB), 1. Zuzenbideko Oinarria.

¹⁰ 1982ko maiatzaren 18ko AGE (1981\2235 JB), 1. Zuzenbideko Oinarria.

denean, enplegua ematen dietenei aplikagarri zaizkien zehapen eta neurrien gutxieneko arauak ezartzekoa¹¹. Izan ere, zuzentarau horren arabera, «bereziki abusuzko lan-baldintzak dira» eta delitua (ikus 9.1 artikulua) «legearen arabera enplegatutako langileen lan-baldintzak zein izan eta baldintza horiei dagokienez nabari-nabari neurri gabekoak diren lan-baldintzak, sexuan oinarritutako edo beste mota bateko bereizkeriaren ondoriozko baldintzak barne, eta, adibidez, langileen osasunean eta segurtasunean eragina dutenak eta giza duintasunaren aurka doazenak» (ikus 2.i artikulua).

Horrenbestez, «esplotazio» hitzak egoera zehatzari astuntasuna eragiten dio, hau da, esplotazioaz mintzatzeko lan-eskubideak zeharo neurritz kanpo ukitu behar dira. Halaber, ukitutako eskubideen edukia dela eta, mailaketa posible bada, delitu-izaera ez zaio lotu behar ukitutako eskubide zehatzari, ezpada ukitzearen norainokoari¹².

Labur-zurrean esanda, «lan-esplotazioa» ez-zilegi penalen esparruan gauzatu behar da bakarrik, eta ez da posible lan-esplotazioaz hitz egitea lan-eskubideak ez betetzeak ez duenean gainditzen administrazio-izaerako ez-zilegia¹³. Horrenbestez, argi dago «lan-esplotazioaz» ulertu beharrekoa Zigor Kodera biltzen dela eta ez abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzazko Errege Dekretura, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginera¹⁴; apirilaren 12ko 7/2007 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutura¹⁵; edo urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikora, atze-

¹¹ 2009ko ekainaren 30eko EBAO, L 168.

¹² PASTOR SANTIAGO, I. "Derecho penal o derecho laboral? Problemática del art. 311.1º del Código Penal", in *Revista Técnico Laboral*, 138. zk, 2013, 471-472 orr.

¹³ Esangura horretan, ikusi CORREA CARRASCO, M. "Los derechos de los trabajadores extranjeros y su protección penal", in *Revista de Derecho Social*, 67. zk., 2014, 52. or.

¹⁴ 2000ko abuztuaren 8ko EAO, 189. zk.

¹⁵ 2007ko apirilaren 13ko EAO, 89. zk.

rritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkora, eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkora¹⁶.

3. LAN-ESPLOTAZIOAREN AGERPENAK ZIGOR KODEAN

6. Zigor Koderak bildu arren, «lan-esplotazio» kontzeptua polisemikoa da, adiera desberdinak baititu, pertsonaren duintasuna ukitzeari dagokionez dituen maila desberdinengatik.
7. Gainera, kontzeptuak dituen adiera desberdinak aztertzeari ekin aurretik, berau hobeto uler dadin, zehaztu behar da «lan-esplotazio» kontzeptua ez dela identifikatu behar soil-soilik legezketasunetik kanpo ekoizpen-xedea duten jokabideekin, halakoen egileak aprobe txamendu ekonomikoa duenean helburu, biktimen lan-eskubideak zapaltzea izanik lan- edo gizarte-kostuak murrizteko estrategia.

Egin-eginean ere, orain arte, gehienbat, esplotazioaren ikuspuntu ekonomikoa nagusitu bada ere¹⁷, gaur egun nabarmendu behar da «lan-esplotazioa» eragin dezaketela, berebat, ekoizpen- edo ekonomia-interes orotatik at, langilea zehatu edo lardieriatzeko xedearekin behin eta berriro lan-eskubideak urratzen dituzten jokabideekin konparazio baterako, errepresalia gisa, salaketa baten nahiz errebin-dikazio-jarrera batengatik, edo sexu-pretentsioren baten aurrean men ez egiteagatik. Bestela esanda, posible da «lan-esplotazioak»

¹⁶ 2000ko urtarrilaren 12ko EAO, 10. zk.

¹⁷ CORREA CARRASCO, M., *op. cit.*, 52-53. orr. Ekoizpen-esparrutik irten gabe ere, ezin ahantz daiteke, Elizaren Doktrina Sozialak gogorarazi bezala, lanaren eta kapitalaren arteko harremanetan, «gaur egun, gatazkak inguruabar berriak dituela eta, beharbada, kezkarriagoak: aurrerakuntza zientifiko eta teknologikoen eta merkatuak globalizatzeak, berez garapen- eta aurrerapen-iturri izanik ere, langileak jartzen dituzte ekonomiaren makineriak eta mugarik gabeko ekoizgarritasunak eragindako esplotazioa pairatzeko arriskuan» (PONTIFICIO CONSEJO. «Justicia y Paz. *Compendio de la Doctrina Social de la Iglesia*. Madril: Biblioteca de Autores Cristianos, 2012, 143. or.).

xede ez izatea «esplotazio ekonomikorik», eta, alderantziz, oinarri izatea beste arrazoiren bat¹⁸.

8. Behin kontzeptuaren inguruko ñabardura eginda, eta «lan-esplotazioaren» gaineko ikuspuntu zabala abiapuntu izanda, beharrezkoa da kontuan hartzea izan badirela «lan-mota berrietan ageri diren esplotazio-motak ere, beste era batekoak eta antzemateko askoz ere gaitzagoak direnak»¹⁹. Juan Pablo II.a Aita Santuak adierazi bezala, «lana alienatzailea da, orobat, berau antolatzeko moduaren ondorioz, lana helburu bakar eta fenomeno isolatu bihurtzen denean, pertsonen arteko harremanak hautsi eta elkarrekiko erabateko lehia eta bazterketa sortuz, lan-munduan pertsona jomuga izateari utzi eta baliabide huts bihurtzeraino»²⁰.

Horregatik, «lan-esplotazioa» gauza daiteke kualifikaziorik gutxieneko lanetan, non, gehienetan, esplotazioak ekonomia- edo ekoizpen-xedea izango duen, baina, baita lan intelektualetan ere, non nagusi izango diren langileen jakitateak, sortze-gaitasuna edo ekintzaile-izaera. Bada, ezerk ez du eragozten xede ekonomikoetatik haratago joan eta xede desberdinak izan ditzakeen bestelako «esplotazio» hori lan intelektualetan ere gauzatzea. Halatan, bestelako «es-

¹⁸ «Lan-esplotazioaren» kontzeptua «esplotazio ekonomikotik» haratago doazen jokabideei hedatzearen inguruan, ikusi POMARES CINTA, E. *El Derecho penal ante la explotación laboral y otras formas de violencia en el trabajo*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2013, 28-30. orr. eta 57-58 orr. Esangura horretan, adierazgarri da oso Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2003ko abenduaren 23ko Epaia (AS 2003\4176). Hurrean ere, jazarpen moraleko kasuetan, «langileari kalte egiteko arrazoia bere pertsonalitatea ahultzea dela» esan ondoren, adierazten da halako kasuetan «enpresaren antolaketa-interesa ez dela jokabidearen arrazoi nagusia, argi baitago horren kontra doala lan-tokian giro txarra sortzea, bai eta langilea behartzea ere, alferrikako, gauzatu ezinezko edo errepikakorrek diren zereginak gauzatzera» (3. Zuzenbideko Oinarria).

¹⁹ PONTIFICIO CONSEJO. «Justicia y Paz. *Compendio de la Doctrina Social de la Iglesia*. Madrid: Biblioteca de Autores Cristianos, 2012, 143. or.

²⁰ *Centesimus Annus* Gutun Entziklika 1991, IV. kapitulua, 41 atala.

plotazio» horrek xede izan dezake, esaterako, hurkoa ezabatzea, lan-ikuspuntutik jakina, edo sexu-izaerako harremanak izatea.

9. Alabaina, badago egin beharreko azken ñabardura bat ere. Hartara, gaur egun askotarikoak direnez zerbitzuak emateko moduak, alokairuko lanak, alegia, lan-kontratuak araututakoak, garai batean zuen erabateko nagusitasuna galdu du. Horrenbestez, «lan-esplotazioa», eskuarki, lan-kontratura bildu diren edo bildu beharko liratekeen lan-harremanei lotu bazaie ere, gaur egun, posible da berau gauzatzea Administrazio publikoen esparruan, enplegatu publiko desberdinei begira (ikus 7/2007 Legearen 8. artikulua), langile autonomoen zerbitzu-emateetan, eta, bereziki, ekonomia-mendekotasuna duten langile autonomoen zerbitzu-emateetan (ikus uztailaren 11ko 20/2007 Legea, Langile Autonomoaren Estatutuari buruzkoa²¹), kooperatibetako langile bazkideen zerbitzu-emateetan, boluntarioen eta kooperanteen zerbitzu-emateetan edo zenbait bekadunen zerbitzu-emateetan. Azken buruan, jurisprudentziak ezarria du, langileen aurkako delituei erreparatzean, «ondore penaltarako langile kontzeptua esangura zabalean ulertu behar dela, bere baitara bilduz Langileen Estatutuak 1.1 eta 2 artikuluetan aipatu dituen langileak ez direnak ere...»²².

Are gehiago, legezkotasunetik kanpoko zerbitzu-emateetan ere (prostituzioan aritzea, kasu), «lan-esplotazioa» alega daiteke. Izan ere, jurisprudentziak aspalditik dioenaren haritik, «hala ez balitz, arau-hauslearentzat mesedegarri litzateke egoera, eta horrek ez du inolako oinarririk, ez baitu zentzurik gizartean araututako jarduera batean enparauak kontratatu eta esplotatzen dituen (lan- nahiz

²¹ 2007ko uztailaren 12ko EAO, 166. zk.

²² Ikusi 2004ko azaroaren 22ko AGE (2004\8019 JB), 1. Zuzenbideko Oinarria, hurrengo epaiak ere aipatuz: 2003ko maiatzaren 30eko AGE (2003\4390 JB) eta 2003ko urtarrilaren 30eko AGE (2003\2027 JB).

zigor-zuzenbidearen ikuspuntutik) inputatu ahal izatea... eta ezinezkoa izatea inputatzea baldintza berberetan esplotatzaile dena, edozein zerbitzu-errendamenduren bidez kontratatutako lan-harremanetako egitekoa arautu gabe egoteagatik, edo arautu ezina izateagatik, dituen inguruabarregatik (duintasunaren, ohorearen eta abarren aurkakoak izateagatik)»²³.

10. Hori guztiori zehaztu ondoren, jarraian, «lan-esplotazioak» Zigor Kodean dituen agerpenak sailkatuko dira. Horrela, lehendabizi, pertsonaren duintasuna gehien ukitzen duten agerpenak aztertuko dira. Halakoetan, langilearen lan egiteko askatasuna urratzen da, langile-izaera ezartzen zaiolako langile izan nahi ez duenari. Bigarrenik, pertsonaren duintasuna gutxiago ukitzen duten agerpenak aztertuko dira. Halakoetan, langileari lan-baldintza edo egoera ez-zilegiak ezartzen zaizkio, baina zerbitzu-emateak badu zerbitzu-emailearen edo langilearen (esangura zabalean) adostasuna. Hori gorabehera, agerpen horiek guztiak Zigor Kodean barreiatuta daude. Horregatik, *lege ferenda*, proposatzen da, etorkizunearn, agerpen horiek guztiak titulu berera jasotzea, hots, «lan-esplotazioari» buruzkora.

3.1. «Lan-esplotazioa» lan egiteko askatasuna urratzearen agerpen gisa

11. «Lan-esplotazioa» ulertzeko modu horren agerpenak jaso dira 177 bis artikuluan, gizakiak trafikatzeari buruzko delitua tipifikatze-koan. Zehatzago, agerpen horiek antzematen dira delitu horren xedeari buruzko osagaietan. Bada, gizakiak trafikatu behar dira,

²³ 2006ko ekainaren 5eko AGE (2006\6296 JB), 3. Zuzenbideko Oinarria. Esangura horretan, 1991ko apirilaren 12ko AGEk (1991\2704 JB) adierazi zuen halako kasuetan Zigor Kodeak «ez dituela babesten formaren aldetik baliagarri den lan-kontratuaren ondoreak, baizik eta beste pertsona batentzat zerbitzuak ematen dituzten pertsonen egoerak». Izan ere, hala ez balitz, babes gutxien duenak jasan beharko lituzke babesik ezaren ondoreak ere» (6. Zuzenbideko Oinarria).

besteak beste, hurrengo xedeekin: derrigorreko lana edo zerbitzuak, esklabotasuna edo esklabotzaren antzeko eginerak, joputza edo eskekotasuna ezartzea.

Ez dago zalantzarik halakoak «lan-esplotazioaren» agerpentzat jotzeko²⁴. Aitzitik, agerpenok definitzea da arazorik handiena. Gogorazi behar da gizakiak trafikatzeari buruzko delitua burutzen dela akzio tipikoa gauzatu ondoren, aintzat hartu gabe «lan-esplotazioa» eragiten duen egoera zehatza gauzatu den ala ez²⁵. Beraz, arazoa sortzen da «lan-esplotazioa» ere gauzatzen denean. Egin-eginean ere, Zigor Kodeak eskekotasun- eta esklabotza-delitua baino ez ditu tipifikatu, eta, kasu horietan ere, tipifikazioak ez du ondo bat egiten «lan-esplotazioaren» ideiarekin.

12. Horrela, eskekotasunari dagokionez, 232. artikulua adingabeekin edo ezgaien eskekotasuna baino ez du tipifikatu, eta ez du definitu zer ulertu behar den jokabide horren inguruan.

Hala eta guztiz ere, definiziorik eza hori konpontzeko kontuan hartu behar da 2011ko apirilaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentaraua, gizakiekin trafikatzeari eta borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzkoa, Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru-erabakia ordeztzekoa²⁶. Horren arabera, eskekotasuna derrigorreko lan- edo zerbitzu-mota gisa hartzen da, 1930eko LANERen 29. Hitzarmenak, derrigo-

²⁴ Ikusi «lan-esplotazioa» kontzeptuaren inguruan jaso den definizioa OSCEren *Ending exploitation. Ensuring that Businesses do not contribute to trafficking in human beings: duties of states and the private sector* agiriko glosarioan, 2014, 7. or.

²⁵ Ikusi MANRIQUE LÓPEZ, F., ARRIETA IDIAKEZ, F.J. eta MANRIQUE ROJO, F. “Combating Trafficking in Human Beings for Labour Exploitation in Spain”, in RIJKEN, C (Dir.), *Combating Trafficking in Human Beings for Labour Exploitation*, Nijmegen (The Netherlands): Wolf Legal Publishers, 2011, 289. or.

²⁶ 2011ko apirilaren 15eko EBAO, L 101.

rreko edo nahitaezko lanari buruzkoak, ezarritakoaren ildotik (ikusi 11. Kontuan Hartzekoa eta 2.3 artikulua).

13. Esklabotza gizateriaren aurkako delitu gisa tipifikatu da 607 bis. 2.10 artikuluan, hurrengo definizioarekin, eta 1926ko irailaren 25eko Nazio Batuetako Esklabotzari buruzko Konbentzioak ezarritakoarekin bat etorriz (ikusi 1.1 artikulua): «norbaiten egoera esklabotasuna dela ulertuko da, baldin eta beste inork, baita egitez ere, jabetza-eskubidearen ezaugarri guztiak edo batzuk erabiltzen baditu haren aurka, adibidez, hura erosi, saldu edo maileguan nahiz trukean ematea».

Nolanahi ere, gizateriaren aurkako delituen ezaugarri da «biztanleria zibilaren edo horren zati baten aurkako eraso orokor edo sistematikoa» (ikusi Zigor Kodearen 607 bis 1). Hori gorabehera, «lan-esplotazioaren» ondoreetarako ulertu behar da esklabotasunak berarekin ekarri behar duela biktimaren gainean «benetako edukitza-harremanak egikaritzea»²⁷, hau da, «delitugilea modu ez-zilegian jabetzea biktimak egindako lanaren balioarekin eta delitugileak biktimari pertsona-izaera kentzea, biktima une oro egon behar izateagatik delitugilearen esanetara; delitugileak jardun behar du biktimaren jabea bailitzan, bere gainean xedatze-eskubidea izango balu bezala»²⁸.

14. Gainerako jokabideei dagokienez, nazioarteko arautegia hartu behar da kontuan²⁹. Horrela, «esklabotzaren antzeko eginerak» jasotzen dira 1956ko irailaren 7ko Nazio Batuen Esklabotza Abolitzeari, Esklaboekin Trafikatzeari eta Esklabotzaren antzeko Erakunde eta Eginerei buruzko Konbentzio Osagarrian (ikusi 1. artikulua).

²⁷ PÉREZ ALONSO, E.J. *Tráfico de personas en inmigración clandestina (un estudio sociológico, internacional y jurídico-penal)*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2008, 63.or.

²⁸ POMARES CINTA, E. *op. cit.* 130. or.

«Joputzari» helduz, nahiz eta nazioarteko legerian berau esanbidez ez definitu, ulertu behar da «esklabotzaren antzeko eginerak» «joputza-motak» direla.

Amaitzeko, «derrigorreko lana edo zerbitzuak» ulertu behar dira 1930eko LANEren 29. Hitzarmenak, derrigorreko edo nahitaezko lanari buruzkoak, «derrigorreko lanaren» inguruan jasotako definizioarekin bat etorriz. Bestela esanda, «derrigorreko edo nahitaezko lan esapideak bere baitan hartzen du norbanako bati edozein zigorren mehatxupearan galdatutako lan edo zerbitzu oro, norbanako horren borondatearen aurka» (1.1 artikulua).

3.2. «Lan-esplotazioa» lan-baldintza edo egoera ez-zilegiak ezartzearen agerpen gisa

15. «Lan-esplotazioa» ulertzeko modu horren agerpenak jaso dira «langileen eskubideen aurkako delituetan» (ikus 311-318. artikulua), bai eta «laneko jazarpenaren» edo «laneko jazarpen moralaren» arauketan (ikus 173.1 artikulua) eta «sexu-jazarpenaren» arauketan (ikus 184. artikulua) ere. Eta zeharka bada ere lan-eskubideak uki ditzaketenez, «lan-esplotazioaren» agerpentzat jo daitezke Gizarte Segurantzaren aurkako delitu batzuk ere (ikus 307 eta 307 bis artikulua)³⁰.
16. «Langileen eskubideen aurkako delituei» dagokienez, 311.1 artikulua da izenburu horretan tipifikatutako delitu guztien «oinarrizko erakundea» edo «delitu orokorra». Hori dela eta, gainerako delituekin duen lotura orokorretik berezira doa, ondorio tipikoei dagokienez. Hortaz, 311.1 artikuluan jasotako delituaren eta

²⁹ Hori berori ondorioztatzen da NBEren *Pertsonak Trafikatzearen aurkako Protokolo Osoaren Ohar-gidatik*, 12-13. orr.

³⁰ CORREA CARRASCO, M., *op. cit.*, p. 52.

gainerako delituen arteko lotura ez da oinarritzko tipoaren eta tipo astundu edo pribilegiatuen artean sortu ohi dena³¹. Zehatzago, 311.1 artikuluko delitua ari da langileei ezartzeaz lege-xedapenetan, hitzarmen kolektiboetan edo banakako kontratuetan zein eskubide izan aitortuta eta eskubide horiek kaltetu, ezabatu edo murrizten dituzten laneko edo Gizarte Segurantzako baldintzak. Edonola ere, delitua egiteko osagai hori nahitaez gauzatu behar da osagai instrumental zehatzen bidez, hots, «engainuaren» bidez edo «beharrizan-egoeraz abusatuta»³², kalterik egin gabe zigorra asuntzeari, aipatu baldintzak ezartzen direnean «indarkeria» edo «larteria» baliatuta.

311.2 artikulua zigortzen ditu aldi berean langile-kopuru jakin bat enplegatzen dutenak —langile-kopuru hori enpresako edo lantokiko plantillaren arabera zehaztu da—, langile horien alta Gizarte Segurantzari komunikatu gabe edo, hala denean, langile horiek lan egiteko kasuan kasuko baimenik lortu gabe. Bada, kasu horretan, badirudi ezkutuan edo adierazi gabe lanean diharduen langile-kopuruarengatik aplikatzen dela zigor-zuzenbidea, hots, inguruabar horrek sortzen duela zigor-zuzenbidea aplikatzeko beharrezkoa den «aparteko arau-urratzea»³³.

Bestalde, 312.2 artikulua, bigarren tartekaduran, eta 311.1 artikuluko delitua egiteko aipatu berri den osagai abiapuntu —nahiz eta horri begira terminologia aldetik aldarazpen batzuk egin—, zigor handiagoko tipo berezi edo espezifikoa jaso du, aplikagarri

³¹ MUÑOZ SÁNCHEZ, J. *El delito de imposición de condiciones ilegales de trabajo del art. 311 del Código Penal en el marco del Derecho penal del trabajo*. Zizur Txikia: Aranzadi, 2008, 68. or.

³² HORREN inguruan ikusi ORTUBAY FUENTES, M. *Tutela de las condiciones de trabajo. Un estudio del artículo 311 del Código Penal*. Bilbo: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco, 2000, 342 eta 364. orr.

³³ RODRÍGUEZ PUERTA, M.J. “El Derecho penal como instrumento de lucha contra el empleo sumergido”, in *Revista Técnico Laboral*, 141. zk., 2014, 344. or.

dena subjektu pasiboa lan-baimenik gabeko atzerritarra denean bakarrik³⁴. Dena den, kontuan harturik lan-baimenik gabeko atzerritarren babesgabetasun handiagoa, ez da behar delitua egitea engainuaren bidez edo beharizan-egoeraz abusatuta.

Gainera, 312. artikuluko 1. paragrafoak eta 2. paragrafoko lehen tartekadurak tipifikatu dute, hurrenez hurren, lan-eskua legearen aurka trafikatzea eta engainuzkoak edo faltsuak diren lan-baldintzak edo enplegua eskaintzea.

313. artikulua lege-maulaz egindako migrazioez ari da, kontratua edo kolokazioa badela itxura eginez, edota horren antzeko beste engainuren bat erabiliz, emigrazioa faboratzen dutenak zigortuz

314. artikulua zehatu du tipifikatu dituen arrazoiengatik bereizkeria larria enpleguan, betiere, subjektu aktiboak administrazio-agindei edo -zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badu, horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak konponduz.

315. artikulua arautu ditu sindikatu-askatasunaren eta greba-eskubidearen aurkako delituak. Batetik, tipifikatu ditu sindikatu-askatasuna edo greba-eskubidea egikaritzea eragozten edo murrizten dituzten jokabideak, betiere, halakoak gauzatzen badira engainuaren bidez edo beharizan-egoeraz abusatuta, kalterik egin gabe zigorra astuntzeari, jokabide horiek egiten direnean indarra, indarkeria edo larderia erabiliz. Bestetik, tipifikatu du dela taldeka, dela bakarka, baina beste batzuekin ados egonik, beste pertsona batzuk derrigortzea greba bat hasteko edo jarraitzeko.

316 eta 317. artikulua ari dira langileen segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituez. Bada, halako delituez mintzatzeko lan-

³⁴ Horren inguruan ikusi MANRIQUE LÓPEZ, F., ARRIETA IDIAKEZ, F.J. eta MANRIQUE ROJO, F. *op. cit.* 293-295. orr.

gileen bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arrisku larrian jarri behar dute, laneko arriskuak prebenitzeko arauak hausteagatik, legez betebeharra izanik, beharrezko bideak erraztu ez dituztenek, langileek euren jarduera egikari dezaten segurtasun eta higieneko neurri egokiekkin.

17. «Langileen eskubideen aurkako delituez» landa, 173.1 artikulua «laneko jazarpen» bertikala tipifikatu du; izan ere, artikulua horren arabera, jazarzailea nahitaez baliatu behar da nagusitasun-harremanez. Halaber, beharrezkoa da behin eta berriro etsaitasuneko edo iraineko ekintzak gauzatzea, tratu apalesgarriak eratu ez baina biktimaren aurkako jazarpen larria eragiten dutenak.

Bestalde, 184. artikulua «sexu-jazarpena» tipifikatu du. Hartara, «sexu-jazarpenaz» ulertu behar da norbaitek berarentzat edo beste batentzat sexu-mesedeak eskatzea, laneko, irakaskuntzako edo zerbitzu-eskaintzako harreman jarraitu edo ohikoen esparruan, betiere, jokabide horrekin biktima jartzen bada larderiakoa, etsaitasunekoa edo apalesgarria den egoera objektibo eta larrian.

Azkenik, 307 artikulua Gizarte Segurantzari iruzur egiteaz ari da, Gizarte Segurantzako kuota eta horrekin batera biltzen diren kontzeptuak (Alokairuak Bermatzeko Funtsa —ALBEFU— eta lanbide-prestakuntza) ez ordaintzeagatik, betiere, ordaindu gabeko kuota edo kontzeptu horiek 50.000 euro gaintzen badute, eta kalterik egin gabe zigorra astuntzeari, 307 bis artikuluko inguruabarrak daudenean.